

2017KO IRAILAREN 28AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzia.

HILABETEA: Iraila.

URTEA: Bi mila eta hamazazpia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak laurden gutxiagotan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2017ko uztailaren 7ko akta onartzea.

2017ko uztailaren 7ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- OBRA ZIURTAGIRIAK: 1. eta 2. ziurtagiriak:

Aho batez, ondorengo erabakia hartu da:

- Zazpiburrieta kalea berrurbanizatzea: onartu dira 1. eta 2. ziurtagiriak, 26.541,37 €ko eta 48.117,13 €ko kopurua dutenak, hurrenez hurren.

- Nekolalde kalea berrurbanizatzea: onartu dira 1. eta 2. ziurtagiriak, 15.772,14 €ko eta 13.665,96 €ko kopurua dutenak, hurrenez hurren.

3.- ASEGURU POLIZEN KONTRATUAREN ALDAKETA: Beasaingo Udalaren eta organismo autonomoen agintari nahiz pertsonalaren erantzukizun zibileko aseguruaren kontratatzea.

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordeko proposamena:

“GAIA: Beasaingo Udalaren Antzizar Kiroldegiaren, Beasaingo Udal Euskaltegiaren eta Beasaingo Loinatz Musika Eskolaren zerbitzura dauden agintari eta pertsonalaren Erantzukizun Zibileko aseguruaren Kontratazioa.

AURREKARIAK

1. Beasaingo Udalak, dagokion lizitazioaren ondoren (2016 PEBO0060 espediente Kodea) eta aseguru etxe desberdinek lote ezberdinei aurkeztutako eskaintzak baloratu ondoren; ondorengo polizak gauzatu zituen:

- 1. Lotea: ONDASUN HIGIEZINEI KALTEAK, MAPFRE Aseguru etxearekin.
- 2. Lotea: ERANTZUKIZUN ZIBILA OROKORRA, MAPFRE Aseguru etxearekin.
- 3. Lotea: IBILGAILUAK, LAGUN ARO Aseguru etxearekin.
- 4. Lotea: ERRALDOIEN KONPARTSA OSASUN ASISTENTZIA, LAGUN ARO Aseguru etxearekin.

2. Egindako kontratua bi urterako egin zen, 2016-9-1etik zenbatzen hasita; eta luzapenerako aukerarik gabe.

3. Hala ere, eta kontratuak gauzatura dauden arren, une honetan, Udal Erakunderen (Udala, Antzizar Kiroldetgia, Euskaltegi eta Musika Eskola) zerbitzura dauden agintari eta pertsonalaren Erantzukizun Zibileko poliza bat egitearen beharra dagoela antzeman da.

MAPFRE, LAGUN ARO eta EGIASA Aseguru-artekaritza erakundeei eskaintzak eskatu zaizkie eta ondorengoak jaso dira:

PROPOSATZAILEA /PROPONENTE	ASEGURATUTAKO KAPITALA /CAPITAL ASEGURADO	URTEKO PRIMA KOPURUA / IMPORTE PRIMA ANUAL	BIURTEKO PRIMA KOPURUA / IMPORTE PRIMA BIANUAL
EGIASA CORREDURÍA DE SEGUROS	1.000.000,00	3.415,00	
	1.500.000,00	3.894,00	
	2.000.000,00	4.241,00	
MAPFRE	500.000,00	2.984,94	5.372,89
	1.000.000,00	3.589,99	6.461,99

LAGUN ARO: EZ DU ESKAINTZARIK AURKEZTEN / NO PRESENTA OFERTA

OINARRI JURIDIKOAK:

1. Baldintza administratiboen Pleguetako 6. Artikulua 19. Artikuluekiko, 2016-7-4ko data duena eta proposamen honetako AURREKARIEN ataleko 1. Puntuan aipatzen diren aseguruaren kontrataziorako Oinarri bezala erabili dena.

2. Kontratu aldaketa honen kopuruak ez du gainditzen MAPFRE aseguru etxearekin egindako haserako kontratuaren kopuruaren %10a.

Goian aipatutako aurrekariak ikusi ondoren, eta ondorengoak kontutan izanik:

- LAGUN ARO ASEGURUAK ez duela eskaintzarik aurkeztu.
- Aurkeztu dutenen beste biren artean eta primaren kopuruari soilik begiratu, onuragarriena EGIASA Aseguru-artekaritzak aurkeztutakoa litzatekela, alde oso txikia izanik: 174,99 €/urtean.

- *ERANTZUKIZUN ZIBILA OROKORRA MAPFRE Aseguru etxearekin dagoela kontratatua.*

Antolakuntza Batzorde honek, bidezkoa eta komenigarria dela jotzen du etorkizunean izan litezkeen ezbeharren kudeaketaren ikuspuntutik, MAPFRE Aseguru etxearekin kontratatzea Beasaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoen zerbitzura dauden agintari eta pertsonalaren ERANTZUKIZUN ZIBILEKO Poliza, eta ondorioz, arlo honetan eskumena duen organoari eramaten dio ondorengo:

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehenena.- *Beasaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoen zerbitzura dauden agintari eta pertsonalaren ERANTZUKIZUN ZIBILEKO Poliza MAPFRE Aseguru etxeari esleitzea eta ondorioz, aseguru etxe honekin hitzartuta dagoen akordioa aldatzea esleipen hau barnean sartuz.*

Bigarrenena.- *Agintari eta enplegatuen erantzukizun zibileko poliza honetan aseguratutako kapitala edo kopurua 1.000.000 €koa izango da, frankiziarik gabe.*

Hirugarrenena.- *Aipatutako polizaren kontratazio epealdia 2018-9-1ean amaituko da.*

Laugarrenena.- *Agintari eta enplegatuen erantzukizun zibileko poliza honetan, kontratatuko den epealdirako primaren kopuru osoa, zergak barne, aurkeztutako eskaintzarekiko (3.589,99 €/urtean) proportzionala izango da.”*

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakori aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.